XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Irailaren 1eko 294/1987 Dekretua aldatu eta osatzen duen ekainaren 30eko 178/1992 Dekretuaren II. eranskinaren I. eta II. eranskinak indargabetuak gelditzen dira. Ibilgailuen azterketa teknikorako aztertokientzako arau orokorrak ezarri eta aztertoki horien jarduna eta garatu beharreko ekintzak arautu zituen 294/1987 Dekretuak.

AZKEN XEDAPENAK

***Lehenengoa.–*** Industriaren segurtasunaren arloan eskumena duen zuzendaritzari ahalmena ematen zaio ibilgailuen azterketa teknikoan aplikatu behar den txosten-eredua eta anomalien zerrenda onar dezan.

***Bigarrena.–*** Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2004ko martxoaren 16an

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Industria, Merkataritza eta Turismo sailburua.
ANA AGUIRRE ZURUTUZA.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Se derogan los apéndices I y II del Anexo II del Decreto 178/1992, de 30 de junio, por el que se modifica y complementa el Decreto 294/1987, de 1 de septiembre, por el que se establecen las normas generales de instalación de las Estaciones de Inspección Técnica de Vehículos I.T.V.–l.A.T. y se regula el funcionamiento y actividades a desarrollar por dichas Estaciones.

DISPOSICIONES FINALES

***Primera.–*** Se faculta a la Dirección competente en materia de seguridad industrial para aprobar el modelo de informe y el listado de anomalías aplicable en la Inspección Técnica de Vehículos.

***Segunda.–*** El presente Decreto entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 16 de marzo de 2004.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

La Consejera de Industria, Comercio y Turismo,
ANA AGUIRRE ZURUTUZA.

## ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA

## Zk-1831

62/2004 DEKRETUA, martxoaren 30ekoa, Garapena eta Lankidetza Sustatzeko Fondoaren Kudeaketa Batzordea arautzekoa.

Garapena eta Lankidetza Sustatzeko Fondoa (GLSF) Finantzen Euskal Kontseiluak 1989ko urriaren 10ean hartutako erabakiz sortu zen; ordutik hona, fondo hori aurrekontu tresna izan da Eusko Jaurlaritzak eta foru aldundiek nazioarteko konpromiso bat bete dezaten, behartsuenei laguntzeko konpromisoa, hain zuzen.

Sortu eta gero ere, GLSFk bilakaera izan du, jakina, etengabeko hazkundeak markatua, garapen-lankidetza politika publikoetan eta euskal gizartean, oro har, sendotuz zihoan heinean. Horrekin batera, funts horretan parte hartzen duten erakundeen dinamikak berak ere lankidetzarako esparru berriak ekarri ditu.

## DEPARTAMENTO DE VIVIENDA Y ASUNTOS SOCIALES

## N°-1831

DECRETO 62/2004, de 30 de marzo, por el que se regula la Comisión Gestora del FOCAD.

El Fondo para la Cooperación y Ayuda al Desarrollo (FOCAD) fue creado por Acuerdo del Consejo Vasco de Finanzas de fecha 10 de octubre de 1989, constituyendo a partir de entonces el instrumento presupuestario destinado por parte del Gobierno Vasco y las Diputaciones Forales a atender el compromiso de solidaridad internacional con los países empobrecidos.

Con posterioridad a este momento de creación, el FOCAD ha tenido una evolución marcada por el constante crecimiento, en la medida también de que la cooperación al desarrollo se iba consolidando en las políticas públicas y en la sociedad vasca en general. Junto a ello, la propia dinámica de las instituciones participantes en él ha generado nuevos espacios propios de cooperación.

Bilakaera horren ondorioz, GLSFk joera bat hartu du, urteen poderioz, zeinaren bidez Eusko Jaurlaritzaren partaidetza ekonomikoa gero eta handiago izan den, hala zenbaki hutsei nola proportzioari begiratuz gero, gaur egunera arte, non EAEko Administrazio Orokorra GLSFren guztizko aportazioaren atzean baitagoen.

Dekretu honek, beraz, egoera berrira egokitu nahi du Funtseko baliabideak esleitu eta kontrolatzeko organoa, alegia GLSFren Kudeaketa Batzordea. Hartara, organo horretan Eusko Legebiltzarra eta Eusko Jaurlaritza ordezkatuta egongo direla finkatu da, baina, era berean, aukera ematen zaie beste erakunde batzuei ere sar daitezen, ekarpenen bilakaerak hala gomendatzen duen neurrian.

Era berean, organo honen beste alderdi batzuk ere eguneratu dira, orain arte indarrean egon den araudiak (apirilaren 19ko 350/1999 Dekretua) ez baititu jaso ondoren onetsitako beste arau batzuek sartutako aldaketak, Jaurlaritzaren alorren egituraketa berriari buruzkoak, bereziki.

Azkenik, Batzordean ordezkotza duten Sailen kopurua handiagotu da, eta bertan aurrerantzean Osasun Saila eta Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saila egongo dira. Osasun Sailean ugari dira garapen lankidetzarako proiektu eta ekimenak; horregatik, Saila organoaren partaide izateak ekintza-lerro hori sendotzeko bidea emango du. Bigarren kasuan, bestalde, agerikoa da euskal lankidetzak garapen iraunkorrari ematen dion garrantzia, horrek berez azaldu egiten du Dekretu honek arautzen duen Batzordeko kide izateko komenigarritasuna.

Ondorioz, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren proposamenez, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2004ko martxoaren 30ean egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

*1. artikulua.*– GLSFren Kudeaketa Batzordea

1.– Dekretu hau GLSFren Kudeaketa Batzordea arautzeko da. Batzorde hori Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailari atxiki zion otsailaren 12ko 40/2002 Dekretuak. Kudeaketa Batzordea erakundeak biltzeko eta koordinatzeko organo bat da, eta Euskal Autonomia Erkidegoan GLSFren bitartez Garapen Lankidetzarako ematen diren diru baliabideak izendatzea eta kontrolatzea da bere zeregina.

2.– Kudeaketa Batzordeak honako kide hauek izango ditu:

Batzordeburua: Gizarte Gaietako sailburuordea.

Batzordeburua kanpoan edo gaixorik dagoenean eta, orokorrean, legeak jasotako arrazoiren batengatik ezin

Esta evolución ha generado que el FOCAD haya registrado una tendencia con el paso de los años a ser un fondo en el cual la participación económica del Gobierno Vasco ha sido, en términos absolutos y relativos, cada vez superior, hasta quedar en el momento actual la Administración General de la CAPV respaldando la aportación total del FOCAD.

El presente Decreto se dirige a adaptar a la nueva situación el órgano de asignación y control de los recursos del fondo, como es la Comisión Gestora del FOCAD. Así, se establece la representación en dicho órgano del Parlamento y Gobierno Vasco, si bien posibilitando la integración por parte de otras instituciones en la medida en que la evolución en las aportaciones así lo aconseje.

Igualmente, se procede a actualizar otros aspectos en la regulación de este órgano, ya que la normativa hasta ahora vigente (el Decreto 350/1999, de 19 de abril, por el que se regula la Comisión Gestora del FOCAD), no recogía los cambios producidos por otras normas aprobadas con posterioridad, y en particular los derivados de la nueva estructuración de las áreas del Gobierno.

Por último, se amplían los Departamentos representados en la Comisión, incluyendo a los de Sanidad y de Ordenación del Territorio y Medio Ambiente. En el caso del primero, son muchos los proyectos e iniciativas de cooperación al desarrollo que se refieren al sector de la salud, por lo que su presencia en este órgano contribuirá a reforzar esta línea de acción. Con respecto al segundo, es obvia la importancia que la cooperación vasca otorga al concepto de desarrollo sostenible, lo que explica la conveniencia de incluir al Departamento competente en esta materia entre los que forman parte de la Comisión que este Decreto regula.

Por lo anterior, a propuesta del Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 30 de marzo de 2004,

DISPONGO:

*Artículo 1.* – Comisión Gestora del FOCAD.

1.– El presente Decreto regula la Comisión Gestora del FOCAD, adscrita al Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales por Decreto 40/2002, de 12 de febrero, como órgano de encuentro y coordinación interinstitucional encargado de la asignación y control de los recursos que en la Comunidad Autónoma del País Vasco se destinan a la Cooperación al Desarrollo a través del FOCAD.

2.– La Comisión Gestora tendrá la siguiente composición:

Presidencia: El Viceconsejero o Viceconsejera de Asuntos Sociales.

En caso de ausencia o enfermedad y, en general, cuando concurra alguna causa legalmente establecida, será

duenean, mailarik altuena duen batzordekidea arituko da haren ordez, batzordekideentzako ondoren ezarriko den hurrenkeraren arabera.

Batzordekideak:

– Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubideen Batzordeko burua.

– Jaurlaritzaren Lehendakaritzako ordezkari bat, sailburuorde maila duena.

– Jaurlaritzaren Lehendakariordetzako ordezkari bat, sailburuorde maila duena.

– Honako sail hauetako ordezkari bana, (sailburuorde maila izango dute):

– Ogasun eta Herri Administrazio Saila.
– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila.
– Industria, Merkataritza eta Turismo Saila.
– Osasun Saila.
– Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saila.

Emakunde Autonomiadun Erakundearen zuzendaria.

Garapen Lankidetzarako zuzendaria; idazkari lanak ere egingo ditu.

3.– Era berean, Jaurlaritzaren Kontseiluak erabaki eta erakunde interesatuak onartu ondoren, honako hauek ere izan daitezke batzordekide: GLSFri baliabideak ekartzen dizkioten Euskal Autonomia Erkidegoko beste erakunde publikoetako ordezkariak.

4.– Kudeaketa Batzordeko kideek, agertu ezin dutenean, ordezkatzen duten organo edo erakundeko beste pertsona bati utziko diote batzordearen bileretan parte hartzeko aukera.

5.– GLSFren Kudeaketa Batzordeak Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen II. tituluko II. kapituluan kide anitzeko organoentzat xedatutakoa bete beharko du funtzionamenduan.

***2. artikulua.***– Egitekoak

Honako egiteko hauek izango ditu GLSFren Kudeaketa Batzordeak:

1.– Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak GLSF arautzeko egiten dituen xedapenak aztertzea eta horiei buruzko txostena ematea.

2.– Proiektuak aztertzeko eta ebaluatzeko lan teknikoa gainbegiratzea, GLSFren konturako dirulaguntzak arautzen dituzten xedapenen arabera.

3.– GLSFren konturako dirulaguntzen urteko esleipena proposatzea, Garapen Lankidetzarako Zuzendaritzak horretarako txostenak egin ondoren.

sustituido/a en sus funciones por la persona vocal con mayor rango, en el orden que seguidamente se establece para los vocales.

Vocales:

– El presidente o presidenta de la Comisión de Derechos Humanos del Parlamento Vasco.

– Una persona representante de la Presidencia del Gobierno con rango de Viceconsejero o Viceconsejera.

– Una persona representante de la Vicepresidencia del Gobierno con rango de Viceconsejero o Viceconsejera.

Una persona representante, con rango de Viceconsejero o Viceconsejera, de cada uno de los siguientes Departamentos:

– Hacienda y Administración Pública.
– Educación, Universidades e Investigación.
– Industria, Comercio y Turismo.
– Sanidad.
– Ordenación del Territorio y Medio Ambiente.

El Director o Directora del Organismo Autónomo Emakunde.

El Director o Directora de Cooperación al Desarrollo, que ejercerá además la secretaría de la Comisión.

3.– Así mismo, previo acuerdo en tal sentido del Consejo de Gobierno y aceptación por parte de la institución interesada, podrán formar parte de la Comisión como vocales las personas en representación de otras instituciones públicas de la Comunidad Autónoma del País Vasco que aporten recursos al FOCAD.

4.– Los miembros de la Comisión Gestora, cuando no sea posible su asistencia, podrán delegar en otra persona del órgano o Institución que representan su participación en las reuniones de dicha Comisión.

5.– El funcionamiento de la Comisión Gestora del FOCAD se regirá por lo dispuesto para los órganos colegiados en el Capítulo II del Título II de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

***Artículo 2.*** – Funciones.

Corresponde a la Comisión Gestora del FOCAD las siguientes funciones:

1.– Analizar e informar las disposiciones que regulen el FOCAD, elaboradas por el Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales.

2.– Supervisar el trabajo técnico de análisis y evaluación de los diferentes proyectos, en el marco de las disposiciones reguladoras de las ayudas con cargo al FOCAD.

3.– Proponer la adjudicación anual de las ayudas con cargo al FOCAD, previos los informes correspondientes de la Dirección de Cooperación al Desarrollo.

*3. artikulua.–* GLSFren Kudeaketa Batzorderentzako laguntza teknikoa

Kudeaketa Batzordeak, bere egitekoak egoki bete ditzan, Garapen Lankidetzarako Zuzendaritzaren laguntza izango du. Garapen Lankidetzarako Zuzendaritzaren zeregina izango da aurkezten diren lankidetza proiektuak aztertu eta ebaluatzea, diruz lagundutako proiektuen jarraipena egitea eta Kudeaketa Batzordeari bere egitekoetarako behar duen informazio guztia ematea.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabetu egin da 350/1999 Dekretua, apirilaren 19koa, Garapena eta Lankidetza Sustatzeko Fondoaren Kudeaketa Batzordea arautzekoa.

Gai honetako araubidean 350/1999 Dekretua aipatzen denean, Dekretu hau aipatzen dela ulertu beharko da.

AZKEN XEDAPENA

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera izango du indarra dekretu honek.

Bergaran, 2004ko martxoaren 30an.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburua,
JAVIER MADRAZO LAVÍN.

*Artículo 3.* – Asistencia técnica a la Comisión Gestora del FOCAD.

Para el correcto desempeño de sus funciones, la Comisión Gestora contará con el apoyo y asistencia de la Dirección de Cooperación al Desarrollo, que asume las tareas de analizar y evaluar los proyectos de cooperación presentados, realizar el seguimiento de la ejecución de los proyectos subvencionados y recabar toda aquella información necesaria solicitada por la Comisión Gestora.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Queda derogado el Decreto 350/1999, de 19 de abril, por el que se regula la Comisión Gestora del FOCAD.

Las remisiones realizadas al Decreto 350/1999, en las distintas normas reglamentarias sobre la materia se entenderán hechas al presente Decreto.

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Bergara, a 30 de marzo de 2004.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

El Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales,
JAVIER MADRAZO LAVÍN.

## NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

## Zk-1832

EBAZPENA, 2004ko martxoaren 11koa, Nekazaritza eta Abeltzaintza zuzendariarena, tarte bakoitzeko abeltzainen artean banatu beharreko Kg/UTA kopuru jakina jakitera ematekoa.

Behi-esnearen erreferentzia-kopuruak berresleitzeko prozedura eta irizpideak ezartzen dituen urtarrilaren 27ko 18/2004 Dekretuko 6. artikuluaren 2. paragrafoak xedatzen du guztira zenbat eskabide aurkeztu diren ezagutu ondoren eta banatu beharreko behi-esnearen erreferentzia-kopuru osoa kontuan hartuta zehaztuko dela indarrean dagoen baremazioaren arabera tarte bakoitzean dauden abeltzainen artean banatu beharre-

## DEPARTAMENTO DE AGRICULTURA Y PESCA

## N°-1832

RESOLUCIÓN de 11 de marzo de 2004 del Director de Agricultura y Ganadería por la que se da a conocer la cantidad concreta en Kg/UTA a distribuir entre los ganaderos dependiendo del tramo en que se hallen.

El Decreto 218/2004, de 27 de enero, por el que se establece el procedimiento y criterios para la reasignación de cantidades de referencia de leche de vaca, en su artículo 6, párrafo 2, dispone que, una vez conocidas todas las solicitudes presentadas, y teniendo en cuenta el total de la cantidad de referencia de leche de vaca a distribuir, se determinará, dentro de cada uno de los tramos en que se encuentra dividida la baremación en vir-